

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko udal mugapean, Lamerako 2 zenbakiko kioskoaren aprobetxamendu pribatiborako emakida.**

2022ko ekainaren 29ko Tokiko Gobernu Batzarreko akordio bidez, deialdia arautzen duten oinarrien onarpena egin da.

1. *Erakunde esleitzaila*
  - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
  - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - c) Espediente-zenbakia: IDA\_ERA\_0158\_2022.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
  - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - b) Helbidea: Irakaskintza kalea 14-16.
  - c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
  - d) Telefonoa: 946 179 105.
  - e) Webgunea: [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)
3. *Lizitazioaren xedea*
  - a) Mota: Jabari publikoko emakida.
  - b) Deskribapena: Bermeoko udal mugapean, Lamerako 2 zenbakiko kioskoaren aprobetxamendu pribatiborako jabari publikoaren kontzesioa.
  - c) Iraupena: Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
  - a) Tramitazioa: Arrunta.
  - b) Prozedura: Irekia.
  - c) Modua: Enkantea.
  - d) Lizitaziorako gutxieneko tasa: 3.668,00 euro/urteko.
5. *Bermeak*
  - a) Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
  - b) Behin betiko bermea: 372,44 euro (okupatzen den jabari publikoaren balioaren %3a).
6. *Eskaintzak aurkeztea*
  - a) Aurkezteko azken eguna: 20 egun baliodun, dagokion iragarkia BAO on argitaratu eta biharamunetik hasita.
  - b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzailerek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 10. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
  - c) Aurkezteko modua:
    - BERHAZ herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo).
    - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
    - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.



7. *Eskaintzak irekitzea*

- a) Erakundea: Kontratazio Mahaia.
- b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2022ko ekainaren 30ean.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense